

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sauveur Camus

*Bildoze-
Onizepea,
Zuberoa (1920)*

Aurkibidea



Biografia



Onizepean sortu zen,
Errettoenea etxean. Aita
Onizepekoa zuen, Joseph
Camus, eta ama
Lohitzunekoa: Marie Eder
Metche. Sauveur haurretan
zaharrena zen; sei arreba
bazituen (beste bi arreba ere
izan zituen, bixkiak, sortu eta
laster zendu zirenak). 13
urtetan Bearnoko etxalde
batera joan zen mutil, 5
hilabetez. Etxaltea Henri
Heugas jaunarena zen,
medikua zena Maulen eta
espartina fabrika bat bazuen.
Sauveurren aita fabrika
hartan lanean ari zen. 2-3
urtez Sauveurren ere han lan
egin zuen; sasoiak bukatzen
zelarik, Bearnoko etxaldera
zihoan lanera. 1936an
Sauveurren maiasturu izateko
ikasi zuen, eta zurgin lanetan
aritu zen aldi batez. 1943an,
STOaren ez egiteko
Espainiara ihes egin zuen, eta
10 hilabetez kartzelan egon
zen han: Iruñean eta Galizian.
Libratua izan zelarik, tropa
libreengana joan zen Ipar
Afrikara (Casablanca). Génie
seksioan sartu zen, Giraud
jeneralarekin; De Gaulle
jeneralaren troparekin joan
zen gero. Italiako frontera
joan zen. Bere lana minen
pausatzea eta minen kentzea
zen. San Rafaelgo
lehorratzean parte hartu
zuen, eta Toulon eta
Marseillaren libratzean ere
bai. Bi urte egin zituen
famiakoak ikusi gabe.
Frantziara joan zenean,
sergent gradua eman zioten.
Gero, Alemaniara igorri zuten.
1945ean desmobilizatua izan
zen. Alsazian egon
zen lanean, 1945etik 1951ra
arte. Ondotik, Xiberoan bere
kontu instalatu zen maiasturu
bezala. Bere lana zer den
esplikatzeko du.

Zintak

BON-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Camus Etchecopar, Argitxu
- **Data:** 2014-08-23
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

BON-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Camus Etchecopar, Argitxu
- **Data:** 2014-08-23
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com